

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ DOBERA

'Urte berri on, amona!', urteko azkeneko filma

Urtea agurtzeko, bihar izango du azkeneko zita, *Zinea Euskaraz!* egitasmoak. Eta propio aukeratuak pelikula bat jarriko dute: *Urte berri on, amona!*, Telmo Esnalek zuzendutakoa. Sandius-terrin izango da, 18:30etan hasita; eta sarreraren truke, borondatea eskatuko dute. ■

■ GABONETAKO LUDOTEKA

Kirol zein jolaserako aukera, kiroldegian

Gaurtik ostiralera egongo da Gabonetako ludoteka, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Kirola eta jolasak izango dira, bi pistatan; eta ordu jakin batzuetan, ekintza gidatuak ere bai.

GAUR irekiko dute, ostiralera bitarte, Gabonetako ludoteka, kiroldegian. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara egongo da zabalik, kiroldegiko bi pistatan: pista batean kirola praktikatze-

ko aukera; eta bestean, jolas librea, *slackline*, eskalada, ohe elastikoak, irakurtzeko txokoa, mahai jolasak...

Ordu jakin batzuetan, gainera, ekintza gidatuak izango

dira: gaur, 10:30etan *spinninga* eta 11:30etan aerobika; bihar, 10:30etan *indoor walkinga* eta 11:30etan *zumba*; eta etzi, azkenik, 10:30etan *zumba* eta 11:30etan *spinninga*. Parte har-

tzeko ez da izena eman behar; bertara azaltzea, nahiko.

GAZTELEKUAN, berriz, larrua lantzeko tailerra egingo dute gaur, 17:30etan; eta zirku tailerra bihar, 17:00etan Biterin. ■

■ ITURRITXO ELKARTEA

Haur txokoak, gaur eta bihar

Urtero bezala, haurrentzako txokoak antolatu ditu Iturritxo elkarteak, bere lokalean. Gaur eta bihar izango dira, goizeko 11:00etatik 13:00etara. ■

■ HERNANI ERROTZEN

Hitzaldia eta sari banaketa, bihar

Memoria lekuak dokumentala aurkeztuko dute bihar, arratsaldeko 19:30etan Biterin, Hernani Errotzenek eta Nabarraldekin. Dokumentalaren aurrerapena egin, eta gaiari buruzko hitzaldia eskainiko dute bertan. Gainera, *Ezagutu Hernani* lehiaketako partehartzaileei, *Beloagako gaztelua* dokumentala banatuko diete, 18:00etatik 20:30etara. ■

■ ERREGEEN KABALGATA

Pajeen trajeak jasotzeko, bihar

Errege Magoen kabalgatan paje gisa aterako direnek, bihar eta urtarrilaren 2an daukate zita, trajea jasotzeko. Biterin egongo dira, 17:00etatik 18:00etara. ■

■ ZUMITZA TTT

Lizentziak egiteko zita, bihar Kiden

2019ko txirindularitza lizentziak egiteko, bihar jarri du zita Zumitza TTT taldeak. Kide kafe-tegarian egongo dira, 19:30etatik 20:30etara. Aurtengo kuota 140 euro dira: 130 euro lizentzia, eta 10 euro klubeko. Aurrez sartu behar da dirua, Kutxabankeko kontu korrontean: ES762095504111073726274; eta errezioba eraman. ■

■ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Opariak banatu aurretik, muxu pila trukean

Herritarren goxotasuna jaso zuten Olentzerok eta Mari Domingik, astelehen arratsaldean.

LAN haundia egin zuten Olentzerok eta Mari Domingik, astelehenetik astearterako gauean, etxe guztietan opariak uzteko. Baina pilak ederki kargatuta zeuzkaten ordurako. Izan ere, arratsaldean muxu pila jaso zituzten opari, hernaniarren eskutik, herriko kaleetan barrena ibilita. Egun osoan zehar, berriz, Gabon errondak egin zituzten, herriko ikastetxe eta talde askok. ■



Kaxkoan barrena goxokiak banatu, eta Plazan gutunak eta muxuak jaso zituzten Olentzerok eta Mari Domingik.



Txoko ugari girotu zituzten Inmakulada ikastetxeek, Gabon kantekin.



Zaharren egoitzara bisita egin zuen Goiz Eguzki abesbatzak, beste behin.

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA
OKINDEGIA

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

Gabonetan, oparia Euskaltelen esku!

SOILK

29'9€ / hil 6 hilabetez

Zatuz Euskaltelera

60 MEGA / 10GB DE MUGAGABEAK

PREMIUM TBa / FINKOIA DE MUGAGABEAK

Fitness jardueraren kontrola duen smartwatch hau ZURETZAT OPARI

euskaltel

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA
GAUR Giro argia izango dugu gaur ere, erdi eta goi mailako laino batzuekin. Hegoaldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura atsegi-na izango dugu eguerdian.
Min.7° / Max.15°
BIHAR Berdintsu egongo da bihar. Tarteka lainoak izango dira zeruan, baina ostarte zabalak ere irekiko dira. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, tarteka bizi.
Min.7° / Max.16°
(euskalmet)

LITERATURA

Legorburuk eta Sanz-Azkuek saria, Bordari eta Satarka lehiaketan

Bosgarrenez jarraian irabazi du Satarka poesia saria Iñigo Legorburuk, eta Bordari ipuin lehiaketako bigarren saria jaso du Iñaki Sanz-Azkuek.

35GARREN edizioa zuen aurten goa, Hondarribiako Bordari eta Satarka literatura lehiaketak. Abenduaren 15ean banatu zituzten sariak, eta horietako hiru, bi hernaniarrentzat izan ziren: Iñigo Legorburu eta Iñaki Sanz-Azkuereentzat.

Satarka poesia lehiaketan nagusitu da Legorburu, *Poema konfabulatuak* lanarekin; eta honekin, bost urtez jarraian lortu du sari nagusia. «Umeen ipuinetako pertsonaiekin fabulatu dut, Hansel eta Gretel, Gulliver, Txanogorritxu eta beste hainbat; eta etorkizun distopiko batean txertatu ditut, errealitate eta fikzioa nahastuz», azaldu du Legorburuk. 800 euroko saria, oroigarria eta poemaren argitarapena lortu ditu.

Sanz-Azkuek, berriz, bi sari jaso ditu, Bordari ipuin lehiaketan. Bigarren sari nagusia eskuratu du berak, eta horrekin batera, Hondarribiako onenaren saria, bertan bizi baita hernaniarra. *Kontrolpean* izeneko lana aurkeztu zuen, eta kontatzen ditu, genetikaren munduko gizonezko katedradun baten gorabeherak: «sagar-doaren munduan dabilen beste gizon batekin oheratuko da, eta horren ondoren, bere bizitzaren kontrola eta deskontrola nola kudeatu behar dituen ikasi beharko du, bere argilun



Iñigo Legorburu eta Iñaki Sanz-Azkue, Hondarribian jasotako sariekkin.

guztiekin», azaldu du egileak. 400 euroko bi sari lortu ditu, beste bi oroigarri, eta bere lana ere argitaratuko dute, Legorburu eta beste sarituenekin batera. Guztira, 41 lan aurkeztu ziren lehiaketara: 22 poesian, eta 19 narratiban.

Legorbururi beste sari bat, Gasteizko Afro elkarteak
Egun horretan bertan, beste sari bat ere jaso zuen Legorburuk berak, Gasteizen, Afro elkartearen eskutik, etorkin

afroamerikarren bilgune dena. Narrazio lehiaketako bigarren saria eskuratu du Legorburuk. *Emakumea eta migrazioa* izan da aurten goa, eta *Bidean* lana aurkeztu du hernaniarrak, Brasiletik Euskal Herrira emigratu behar duen emakume baten kasua landuz, hemen operatu dezaten. Identitate sexuala eta lan arloa uztartzen ditu narrazioak.

Bigarren postu horrekin, 250 euroko diru saria jaso du Legorburuk. ||

SANTO TOMAS AZOKA



Arriatzu barazkiak Donostiako Santo Tomas azokan, hiru sari lortuta.

Arriatzu barazkiek hiru sari, Donostian

Santo Tomas egunez Donostiako Konstituzio plazan jarri zuen postua Arriatzu barazkiak denda hernaniarrak, eta hiru sarirekin etxeratu zen: postu onenari Jose Salaberria saria, barazki lehiaketako bigarren saria, eta fruitu lehiaketako bigarrena. 1936az geroztik, tranbian Bretxara produktuak eraman izanak emandako esperientzia izango da, giltza! ||

GABONETAKO KONTZERTUA



Elkarrekin aritu ziren elizan, bi abesbatzak eta Musika Bandako kideak.

Gabonetako doinuak, hiru hotsetara

Gabonetako kontzertu berezia eskaini zuten San Joan Bataiatzailearen elizan, larunbat iluntzean, hiru taldek: Hernaniko Musika Bandak eta Ozenki abesbatzak, eta Goizuetako Umore Ona abesbatzak. ||

EUSKARA ARI DU



Killimak musika taldea ere izan zen, Euskara Ari Duren azken festan.

Musika eta magia, erronka agurtzeko

Baietz Hernanik! erronkari bukaera emateko, azken festa ospatu zuen Euskara Ari Duk, igande eguerdian, Biterin. Killimak taldearen musika edota Asier Kidamen magia izan zituzten gozagarrri, besteak beste. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **BOST TELEOPERADORA LANPOSTU** bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu **943 31 86 06**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Kontrakantxak 12 urte

Lehenik eta behin, eskerrak eman beharrean gaude gaxte-zeko kideak, Kontrakantxaren urteurrena dela eta, pasa diren bi asteetan antolatzen lagundu, parte hartu, bertara hurbildu, zabaldu eta edonola zerikusia izan duzuen guztioi; milesker benetan hau aurrera ateratzen laguntzeagatik. Bestalde, argi dugu urteurreneko ajea pasata lanean jarraituko dugula, eta duela 12 urte finkatu ziren eta orain arte borrokatu diren funtzioak (besteak beste, bizi eredu ezberdinak planteatzea, herriko gazteen harremanak sendotzea, gazteei taberna, lokal eta mar-

katuriko estandarrez haratago beste espazio eta aisialdi mota bat eskaintzea, individualismo-arekin apurtuz kolektibizazioa bultzatzea, gazteen sorkuntza eta inizatiba bultzatzea eta herria eta kaleak girotzea) betetzeko helburuarekin borrokan jarraituko dugula, gauzak aldatzea lortu den arren, oraindik asko dugulako borrokatzeko.

Bestalde, adierazi nahi dugu, bide hau ezin dugula pertsona bakar batzuek egin, eta orain arte hau gauzatzen egon zareten guztioi, bakoitzak ahal izan duen bezala, horretan jarraitzea animatzen zaituztegu, zuek gabe ez ginatekeelako hemen

egongo. Eta besteei, gonbita egiten dizuegu, proiektu eta prozesu honen parte izateko, norberak ahal duen ekarpena egiten (antolatutako gauzetara azalduz, asanbladaren parte izanez, gaztetxearen gauzak lagunen artean eta sare sozialetan zabalduz, edo beste edozein modutan), ekarpen txiki oro gaztetxearentzat aberasgarria baita.

Bukatzeko, gogoratu gaztetxeo asanblada ostegunetan 17:00etan egiten dela gaztetxean bertan, eta irekia izateaz gain, ekarpen eta laguntza oro jasotzeko prest gaudela.

Anartz Elozegi Mujika